



**AGINDUA, JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN
SAILBURUARENA, JUSTIZIA ARLOKO
«MANUEL DE IRUJO» SARIA ARAUTZEN
DUEN DEKRETU-PROIEKTUA ALDEZ
AURRETIK ONARTZEN DUENA.**

Justizia eta Giza Eskubideen sailburuaren 2026ko maiatzaren 18ko Aginduaren bidez, hasiera eman zitzaion Justizia arloko «Manuel de Irujo» Saria arautzen duen dekretu-proiektua egiteko prozedurari.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legeak 12. artikuluan xedatzen duenez, «xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko titularraren aginduz hasiko da».

Lege horren 15. artikuluan ezarritakoaren arabera, «xedapen orokorren Proiektuak idatzi ondoren, dagozkion negoziazio-, entzualdi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik, hasteko agindua eman duen organoak aldeztu aurretik onartu beharko du testu artikulatua».

Adierazitakoaren ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. Aldeztu aurretik onartzea Justizia arloko «Manuel de Irujo» saria arautzen duen dekretu-proiektua.

Bigarrena. Dekretu-proiektuaren prozedura izapidetzen jarraitzeko agintzea, Hasteko Aginduan eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legean ezarritako izapideekin bat etorritik, dekretua onartzeko ondorioetarako.

**ORDEN DE LA CONSEJERA DE JUSTICIA Y
DERECHOS HUMANOS, POR LA QUE SE
APRUEBA CON CARÁCTER PREVIO EL
PROYECTO DE DECRETO POR EL QUE SE
REGULA EL PREMIO «MANUEL DE IRUJO»
DE JUSTICIA.**

Mediante la Orden de 18 de mayo de 2026, de la consejera de Justicia y Derechos Humanos, se inició el procedimiento de elaboración del proyecto de decreto por el que se regula el premio «Manuel de Irujo» de Justicia.

La Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento del Elaboración de Disposiciones de Carácter General dispone, en su artículo 12, que «el procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general se iniciará por Orden de la persona titular del departamento competente por razón de la materia sobre la que versen».

De conformidad con lo establecido en el artículo 15 de dicha Ley «una vez redactados los proyectos de disposiciones de carácter general, antes de evacuar los trámites de negociación, audiencia y consulta que procedan, el texto articulado correspondiente deberá contar con la aprobación previa acordada por el órgano que haya dictado la orden de inicio».

En virtud de lo anteriormente expuesto,

RESUELVO:

Primero. Aprobar con carácter previo el proyecto de Decreto por el que se regula el premio «Manuel de Irujo» de Justicia.

Segundo. Ordenar la continuación de la tramitación del procedimiento del proyecto de Decreto, de conformidad con los trámites establecidos en la Orden de Inicio y en la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento del Elaboración de Disposiciones de Carácter General, a los efectos de la aprobación del decreto.

Justizia eta Giza Eskubideen sailburua
La consejera de Justicia y Derechos Humanos
MARÍA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ



xx/xxxx DEKRETU, xx (e)koa, Justizia arloko «Manuel de Irujo» saria arautzen duena.

«Manuel de Irujo» sariaren helburua da, Manuel de Irujoren ondare etiko eta juridikoarekin bat etorriz, bere ibilbide pertsonal edo profesionalarekin Justiziarekiko konpromisoaren lekukotza ematen duten eta Justiziaren edozein diziplina edo espezialitatetan Zuzenbidea garatzen eta sustatzen laguntzen duten pertsonak edo kolektiboak aintzatestea eta publikoki saritzea.

Sariaren izena Manuel de Irujo y Olló jauna omentzeko egiten da; Lizarran, 1891ko irailaren 25ean jaioa. Espainiako II. Errepublikako Justizia ministro izan zen, eta haren ibilbide instituzional eta pertsonala berdintasun sozialaren, askatasun indibidualen, demokrazia politikoaren, justiziaren, Zuzenbide Estatuaren eta Botere Judizialaren independentziaren defentsa irmoak markatu zuen, baita oso kontrako egoera historikoetan.

Saria Eusko Jaurlaritzak sortu zuen 2003an, orduko Justizia Sailaren esparruan, baina sortu zenetik lehen urteetan hainbat edizio egin ondoren, deialdiak egiteari utzi zitzaion. Hala ere, memoria demokratikoari, giza eskubideei eta bizikidetzari buruzko politika publikoen esparruan, justiziaren arloan eskumena duen sailak egokitzat jotzen du sari hori berreskuratzea, eta berriro aktibatzea haren figuraren balioekin konprometitutako ibilbideen aintzatespen publikorako tresna gisa.

Nabarmendu behar da, saria deitu zen urteetan, hainbat emakumeren ibilbidea aitortu zuela sariak; izan ere, justiziaren eta balio demokratikoen eremuan egindako ekarpena bereziki garrantzitsua izan da, eta sariaren inspirazio-xedeekiko zeregina eta konpromisoa ikusarazi ditu.

«Manuel de Irujo» Saria arautzen duen dekretu berri honek gardentasunaren, parte-hartzearen eta aintzatespenaren arloan aurrera egin nahi du, dirulaguntzen arloan indarrean dagoen araudira egokituz. Era berean, sariak Zuzenbide Estatu, giza duintasuna, justizia eta bizikidetzaren demokratikoa defendatzeko tresna eraginkorra izaten jarraituko duela bermatzen du.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 20. artikuluan ezarritakoaren arabera, Justizia eta Giza Eskubideen Sailari dagokio giza eskubideak eta bizikidetzaren baliatzeko baldintzak sustatzeko politika publikoa bultzatzea, bai eta Zuzenbide Estatuaren garatzea eta Euskal Autonomia Erkidegoan justizia finkatzea ere.

Ondorioz, Justizia eta Giza Eskubideen sailburuaren proposamenez, eta Gobernu Kontseiluak 2026ko..... aren... (e) (a) n egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

1. artikulua. Xedea.

Dekretu honen xedea da «Manuel de Irujo» saria arautzea. Sari horren helburua da publikoki aitortzea beren ibilbide pertsonal edo profesionalarekin Justiziarekiko eta Justizia bultzatzen duten balioekiko konpromisoaren lekukotza ematen duten eta Zuzenbidea edozein diziplina edo espezialitatetan garatzen eta sustatzen laguntzen duten pertsonak edo kolektiboak.

2. artikulua. *Sariaren ezaugarriak.*

1. Justiziaren eta justiziaren oinarri diren balio eta printzipioen eremuan, bai eta Zuzenbidearen edozein diziplina edo espezialitatearen garapenean ere, modu nabarmenean laguntzen edo lagundu duten pertsona fisiko edo juridiko, publiko edo pribatuei ematen zaie saria.
2. Saria ohorezko aipamen batek, aintzatespen publiko batek eta dagokion deialdiaren ebazpenean zehaztuko den diru-zenbateko batek osatzen dute.
3. Diruzko zenbatekoa ordainketa bakarrean ordainduko da, saria eman ondoren.

3. artikulua. *Deialdia.*

1. Sariaren deialdia urtero egingo da, justizia-arloan eskumena duen zuzendariaren ebazpen bidez.
2. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta bertan honako hauek ezarriko dira: sariak dakarren diru-zenbatekoa, hautagaitzak aurkezteko eskatzen diren baldintza zehatzak, aurkeztu beharreko dokumentazioa, hautagaitzak aurkezteko epea, modua eta lekua, eta epaimahaiaren osaera.
3. Deialdia egiteko ebazpenak saria barne bilduta dagoen Dirulaguntzen Plan Estrategikoari aipamena egingo dio, eta adieraziko da saria emateak nola laguntzen duen Planaren helburuak lortzen.

4. artikulua. *Hautagaitzak aurkeztea.*

1. Hautagaitzak edozein pertsona fisikok edo juridikok, publiko zein pribatuk, aurkez ditzake, bere merezimenduengatik saria jaso dezakeen beste hirugarren baten alde.
2. – Ezingo dute sari hau eskuratu Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 7.3 eta 13. artikuluetan onuradun izateko ezarritako debekuren bat duten pertsona fisiko edo juridikoek.
3. Halaber, sariak esleitzeko eta, hala badagokio, emateko, ezinbestekoa izango da amaituta egotea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari den edozein itzulketa- edo zehapen-prozedura, bai eta laguntza horien barruan erabakitzen diren itzulketa-betebeharrak erabat betetzea ere.
4. Hautagaitzak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan horretarako prestatutako inprimakiaren bidez aurkeztuko dira. Eredu hori nahitaez erabili beharko da kasu guztietan.

Pertsona juridikoek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dute hautagaitza, 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.

Manu horretan sartzan ez diren pertsona fisikoek aukera izango dute aurkezpena telematikoki egiteko, egoitza elektronikoaren bidez, edo aurrez aurre, gaitutako herritarrentzako arreta-bulegoetan.

Helbide honetan eskuratu daitezke Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan onartutako identifikazio eta sinadura elektronikorako bitartekoak: <https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/>

5. Hautagaitza, dagokion dokumentazioarekin batera, euskaraz edo gaztelaniaz aurkeztu ahal izango da, pertsona fisiko edo juridiko eskatzailearen aukeran. Prozedura osoan zehar, hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

6. – Hautagaitzekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Hautagaitza justifikatzen duten ibilbidea eta arrazoiak deskribatzen dituen memoria.
- b) Hala badagokio, hautagaitzak formalizatzen dituztenek proposatutako pertsonaren alde aurkezten dituzten abalak edo atxikipenak.

7. Eskabideak ez badira osorik betetzen, edo haiekin batera ez bada aurreko apartatuetan adierazitako dokumentazio guztia aurkezten, organo kudeatzaileak hamar eguneko epea emango dio pertsona fisiko edo juridiko eskatzaileari akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko agiriak aurkezteko, eta ohartaraziko dio, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, horretarako ebazpena Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. eta 68. artikuluetan aurreikusitako moduan eman ondoren.

8. Eskabideak aurkezteko epea urteko deialdiaren ebazpenean ezarriko da, eta ez da hilabetetik beherakoa izango.

5. artikulua. *Sariaren kudeaketa.*

1. Justizia-arloko zuzendaritza eskuduna da saria emateko prozedura kudeatzeko organoa.
2. Justizia-arloko sailburuordetza eskudunak du saria ematea ebazteko eskumena.
3. Saria publizitate, gardentasun, lehia, objektibotasun, berdintasun eta diskriminaziorik ezaren printzipioen arabera kudeatu eta emango da. Era berean, ezarritako helburuak betetzeko efikazia-printzipioa eta baliabide publikoak esleitzeko eta erabiltzeko efizientzia-printzipioa beteko dira, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko 20/2023 Legearen 7.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

6. artikulua. *Epaimahaia.*

1. Saria zein pertsona fisiko edo juridikok merezi duen erabakitzeke, epaimahai bat eratuko da, eta sariaren deialdiaren ebazpenean emango da partehartzaileak zein izango diren.
2. Justizia arloan eskumena duen sailburuordea izango da epaimahaiburua, eta beste lau kide izango ditu, Justiziaren eta Zuzenbidearen arloan, diziplina edo espezialitate guztietan, ospe eta ibilbide aitortua duten pertsonen artean hautatuak. Trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izango du.
3. Justizia arloan eskumena duen zuzendaria izango da epaimahaiko idazkaria, eta hitza izango du, baina botorik ez.
- 4.- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean ezarritakoaren arabera arautuko da epaimahaiaren funtzionamendua, deialdiei, saioei –

aurrez aurre edo urrutitik –, bertaratzeari, quorumari, erabakiak hartzeari eta aktei dagokienez.

5. Erabakiak emandako botoen gehiengo soilez hartuko dira, eta berdinketarik gertatuz gero, epaimahaiburuak erabaki ahal izango du. Idazkariak hartzen diren jarduera eta erabaki guztien akta egingo du, eta saria emateko proposamen arrazoitua idatziko du. Proposamen hori epaimahaiburuak sinatuko du.

6. Epaimahaiko kideak abstenitu egingo dira eta errekusatuak izan daitezke Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

7. Epaimahaiaren bileretan, kideek gaztelania eta euskara erabili ahal izango dituzte. Era berean, deialdietan, gai-zerrendetan, aktetan eta beste idazki batzuetan, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatuko da.

7. artikulua. *Emateko prozedura.*

Lehiaketa bidezko norgehiagoka izango da «Manuel de Irujo» saria emateko erabiliko den prozedura, dekretu honetan ezarritako irizpideen arabera.

Hautagaitzak baloratzeko eta saria emateko proposamena egitea epaimahaiari dagokio, 9. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Merezimenduen balioespena kualitatiboa eta konparatiboa izango da, sariaren ohorezko eta aintzatespeneko izaeraren arabera. .

8. artikulua. *Balorazio-irizpideak.*

Saria emateko bere proposamena egiteko, epaimahaiak honako balorazio-irizpide hauek hartuko ditu kontuan:

- a) Proposatutako pertsonak edo pertsonak Justiziaren eta hura inspiratzen duten balio eta printzipioen esparruan duten esperientzia eta ibilbide pertsonal eta profesionala, bai eta Zuzenbidearen garapenari egiten dioten ekarpenean ere, edozein diziplina edo espezialitatetan. Era berean, ikerketa juridikoaren arloko ibilbidea baloratuko da, kasu honetan originaltasuna, kalitatea, zuzentasun metodologikoa, zorrotasun zientifikoa, diziplinarteko izaera edo ikerketan genero-ikuspegia txertatzea kontuan hartuta (40 puntu).
- b) Justiziaren balioak sustatzeari eta finkatzeari dagokionez garatutako jardueraren edo ikerketaren berezko garrantzia (30 puntu).
- c) Proposatutako pertsonak edo pertsonak garatutako jarduerak edo ibilbideak EAEko gizartean eta nazioartean izan duen oihartzuna eta eragina (30 puntu).

9. artikulua. *Epaimahaiaren txostena.*

1. Epaimahaiak txosten bat idatziko du, eta, bertan, dekretu honetan jasotako balorazio-irizpideei dagokienez hartutako erabakia justifikatzen duten arrazoiak adieraziko ditu, bai eta, hala badagokio, saritutako pertsona fisiko edo juridikoaren ibilbidearen esanahiak merezi duen balorazioa ere.

2. Epaimahaiak «ex aequo» saria hainbat hautagairi ematea proposatu ahal izango du; kasu horretan, deialdian aurreikusitako zenbatekoak hainbanatu egingo dira sarituen artean. Epaimahaiak, halaber, saria eman gabe uztea proposatu ahal izango du, baldin eta, bere iritziz, hautagaitzek ez badute merezimendu nahikorik saria jasotzeko.



3. Epaimahaiak saria emateko proposamena jasotzen duen txostena igorriko dio justiziaren arloan eskumena duen zuzendaritzari.

4. Ebazpena eman aurretik, epaimahaiak hautatutako pertsonari eskatuko zaio 4. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan ezarritako debekuen eraginpean ez dagoela dioen erantzukizunpeko adierazpena aurkezteko, bai eta jakinarazpenetarako aukeratutako komunikabidearena ere.

10. artikulua. *Saria ematea.*

1. Epaimahaiak saria emateko proposamena jasotzen duen txostena egin ondoren, organo kudeatzaileak saria emateko ebazpen-proposamena egingo du, behar bezala arrazoitutako ebazpen baten bidez. Irabazle proposatutako pertsona fisiko edo juridikoari jakinarazi beharko zaio, eta hamar eguneko epea emango da saria onartzeko.

2. Onarpena epe barruan egiten bada, organo kudeatzaileak behin betiko ebazpen-proposamena igorriko dio saria emateko prozedura ebazteko eskumena duen organoari.

3. Epe hori igarotakoan, ez bada berriazko onarpen-jakinarazpenik egin, edo proposatutako pertsonak edo erakundeak uko egiten diola adierazten badu, organo kudeatzaileak ebazpen-proposamena igorriko dio organo eskudunari, eta saria eman gabe utziko du.

4. Behin betiko ebazpen-proposamena onartu ondoren, saria emateko prozedura ebazteko eskumena duen organoak saria emateko edo saria eman gabe uzteko ebazpena emango du.

5. Behar bezalako publikotasunaren ondorioetarako, ebazpena, saria ematekoa edo eman gabe uztekoa, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

6. Saria gehienez ere sei hilabeteko epean eman eta jakinarazi beharko da, deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

7. Epe hori igaro eta saria emateko ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, hautagaitzak ezetsizat jo ahal izango dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25.1 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

11. artikulua. *Saria eta errekonozimendu publikoa ematea.*

1. Saria emateko ebazpena argitaratu ondoren izapidetuko da sariaren zuzkidura ekonomikoaren ordainketa.

2. Justizia arloan eskumena duen sailburuordetzak horretarako antolatutako ekitaldi publiko batean emango da saria.

Pertsona edo erakunde saritu bat ezin bada ekitaldi publikora joan arrazoi justifikatuengatik, behar besteko aurrerapenaz pertsona bat izendatu beharko du saria bere izenean jaso dezan.

12. artikulua. *Ez-betetzeak.*

Dekretu honetan eta deialdiari aplikatu dakiokeen edozein xedapen orokorretan ezarritako edozein betebeharrak ez bada, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen III. tituluaren eta, hala badagokio, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan xedatutakoa aplikatuko da (698/1991 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duena eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituen).

13. artikulua. *Bateragarritasunak.*

Saria jasotzea bateragarria da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administraziok edo erakunde publiko edo pribatuk emanik ere, Estatukoak, Europar Batasunekoak edo nazioartekoak.

Lehenengo xedapen gehigarria. *Datuen babesa.*

Sari honen kudeaketarekin lotutako datu pertsonalen tratamenduek honako hauetan ezarritakoa bete beharko dute: 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra), eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.

Bigarren xedapen gehigarria. *Araudi osagarria.*

Dekretu honetan berariaz arautzen ez den guztirako, honako hauetan xedatutakoa aplikatuko da: Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legea; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta haren Erregelamendua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua); Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea, eta aplikatzekoak diren gainerako arauak.

Azken xedapen bakarra. *Indarrean jartzea.*

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen,

Lehendakaria,
IMANOL PRADALES GIL

Justizia eta Giza Eskubideen sailburua
MARÍA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LOPÉZ

DECRETO XX/XXXX, XX, por el que se regula el Premio «Manuel de Irujo» de Justicia.

El premio «Manuel de Irujo» tiene como finalidad reconocer y distinguir públicamente a aquellas personas o colectivos que, con su trayectoria personal o profesional, dan testimonio de su compromiso con la justicia y los valores que la inspiran y contribuyen al desarrollo y fomento del derecho en cualesquiera de sus disciplinas o especialidades, en coherencia con el legado ético y jurídico de Manuel de Irujo.

La denominación del premio responde a la memoria de D. Manuel de Irujo y Olo, nacido en Lizarra-Estella el 25 de septiembre de 1891. Ministro de Justicia de la II República Española, su trayectoria institucional y personal estuvo marcada por una defensa firme de la igualdad social, las libertades individuales, la democracia política, la justicia, el estado de derecho y la independencia del Poder Judicial, incluso en circunstancias históricas extremadamente adversas.

Este premio fue creado por el Gobierno Vasco en el año 2003, en el ámbito del entonces Departamento de Justicia, si bien dejó de convocarse tras varias ediciones celebradas en los primeros años desde su creación. No obstante, en el marco de las políticas públicas de memoria democrática, derechos humanos y convivencia, el departamento competente en materia de Justicia considera oportuno recuperar este premio, reactivándolo como un instrumento de reconocimiento público a trayectorias comprometidas con los valores que encarnó su figura.

Cabe resaltar que durante los años en los que el premio fue convocado, el galardón reconoció la trayectoria de diversas mujeres cuya contribución en el ámbito de la justicia y los valores democráticos ha resultado especialmente relevante, visibilizando su papel y compromiso con los fines que lo inspiran.

Este nuevo decreto regulador del premio «Manuel de Irujo» pretende avanzar en materia de transparencia, participación y reconocimiento, adaptándose a la normativa vigente en materia de subvenciones. Asimismo, garantiza que el premio continúe siendo un instrumento eficaz para la defensa del estado de derecho, la dignidad humana, la justicia y la convivencia democrática.

De conformidad con lo establecido en el artículo 20 del Decreto 18/2024, de 23 de junio del Lehendakari, de creación supresión y modificación de los Departamentos de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de estos, corresponde al Departamento de Justicia y Derechos Humanos impulsar una política pública de promoción de las condiciones para el ejercicio de los derechos humanos y de la convivencia, así como el desarrollo del estado de derecho y la consolidación de la justicia en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En su virtud, a propuesta de la consejera de Justicia y Derechos Humanos, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día ... de de 2026,

DISPONGO:

Artículo 1. Objeto.

El objeto del presente Decreto es regular el premio «Manuel de Irujo», cuya finalidad es reconocer públicamente a aquellas personas o colectivos que, con su trayectoria personal o profesional, dan testimonio de su compromiso con la Justicia y los valores que la alientan y contribuyen al desarrollo y fomento del derecho en cualesquiera de sus disciplinas o especialidades.

Artículo 2. Características del Premio.

1. El premio se concede a aquellas personas físicas o jurídicas, públicas o privadas, que con su actuación y trayectoria contribuyan o hayan contribuido de manera destacada en el ámbito de la Justicia y de los valores y principios que la inspiran, así como en la contribución al desarrollo del derecho en cualquiera de sus disciplinas o especialidades.
2. El premio consiste en una distinción honorífica, un reconocimiento público, y una cantidad dineraria cuya cuantía se determinará en la resolución de convocatoria correspondiente.
3. El pago de la cantidad dineraria se realiza en un único abono, tras la concesión del Premio.

Artículo 3. Convocatoria.

1. Anualmente, mediante resolución de la persona titular de la dirección competente en materia de Justicia, se procederá a convocar el Premio.
2. En dicha resolución, que se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco, se establecerá la cantidad dineraria que conlleva el premio, las condiciones concretas exigidas para la presentación de candidaturas, la documentación a aportar, el plazo, la forma y el lugar de presentación de las candidaturas, así como la composición del Jurado.
3. La resolución de la convocatoria hará referencia al Plan Estratégico de Subvenciones en el que se integra el premio, y señalará el modo en que su concesión contribuye al logro de los objetivos del Plan.

Artículo 4. Presentación de candidaturas.

1. Las candidaturas pueden ser presentadas por cualquier persona física o jurídica, pública o privada, en beneficio de otra tercera diferente que pueda aspirar al Premio por sus méritos.
2. No podrán acceder a este premio las personas físicas o jurídicas en quienes concurra alguna de las prohibiciones que para la adquisición de la condición de beneficiaria establecen los artículos 7.3 y 13 de la Ley 20/2023, de 21 de diciembre, Reguladora del Régimen de Subvenciones.
3. Asimismo, la adjudicación, y en su caso, la entrega de premios, quedarán condicionados a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación, así como a la total satisfacción de las obligaciones de reintegro que se acuerden en el seno de aquellos.
4. Las candidaturas se presentarán mediante formulario habilitado al efecto en la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi. El uso de este modelo será obligatorio en todos los casos.

Las personas jurídicas deberán presentar la candidatura a través de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi de conformidad con lo establecido en el art. 14.2 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Las personas físicas no incluidas en dicho precepto podrán optar por realizar la presentación de forma telemática a través de la sede electrónica o presencialmente en las oficinas de atención ciudadana habilitadas.

Los medios de identificación y firma electrónica admitidos en la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi están accesibles en la siguiente dirección: <https://www.euskadi.eus/certificados-electronicos>.

5. La candidatura podrá presentarse, junto con la documentación correspondiente, en euskera o castellano, a elección de la persona física o jurídica solicitante. Durante todo el procedimiento se utilizará el idioma elegido, conforme a lo establecido en los artículos 5.2.a) y 6.1 de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera.

6. Las candidaturas deberán ir acompañadas de la siguiente documentación:

- a) Una memoria descriptiva de la trayectoria y las razones que justifican la candidatura.
- b) En su caso, los avales o adhesiones que, a favor de la persona propuesta, presenten quienes formalicen las candidaturas

7. Si las solicitudes no vinieran cumplimentadas en todos sus términos o no estuvieran acompañadas de toda la documentación señalada en los apartados anteriores, el órgano gestor requerirá a la persona física o jurídica solicitante para que, en un plazo de diez días, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en los artículos 21 y 68 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

8. El plazo de presentación de solicitudes, que no será inferior a un mes, será el establecido en la resolución de la convocatoria anual.

Artículo 5. Gestión del Premio.

1. La dirección competente en materia de justicia es el órgano de gestión del procedimiento de concesión del premio.

2. La viceconsejería competente en materia de justicia es la competente para resolver la concesión del premio.

3. La gestión y el otorgamiento del premio se realizará de acuerdo con los principios de publicidad, transparencia, concurrencia, objetividad, igualdad y no discriminación. Asimismo, se cumplirá con el principio de eficacia en el cumplimiento de los objetivos fijados y con el principio de eficiencia en la asignación y utilización de los recursos públicos, de conformidad con lo establecido en el artículo 7.2 de la Ley 20/2023, Reguladora del Régimen de Subvenciones.

Artículo 6. Jurado.

1. Para la elección de la persona física o jurídica merecedora del premio se constituirá un jurado, cuya composición nominal se hará pública en la resolución de convocatoria del premio.

2. El jurado estará compuesto por la persona titular de la viceconsejería competente en materia de justicia, que ejercerá su presidencia, y por cuatro vocales elegidos entre personalidades de reconocido prestigio y acreditada trayectoria en el ámbito de la justicia y del derecho, en sus distintas disciplinas o especialidades. Tendrá una representación equilibrada de mujeres y hombres con capacitación, competencia y preparación adecuada.
3. La persona titular de la dirección competente en materia de justicia ejercerá la secretaría con voz, pero sin voto.
4. El funcionamiento del jurado en cuanto a convocatorias, sesiones en forma presencial o a distancia, asistencia, quorum, adopción de acuerdos y actas se regirá por lo establecido en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.
5. Los acuerdos serán adoptados por mayoría simple de votos emitidos, pudiendo dirimir la presidencia los empates que se puedan producir. El secretario o la secretaria levantará acta de cuantas actuaciones y acuerdos se adopten, y redactará la propuesta motivada de concesión del premio, que la presentará a la firma del presidente o la presidenta del jurado.
6. Los miembros del jurado deberán abstenerse y podrán ser recusados en los términos previstos en los artículos 23 y 24 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.
7. Los miembros del jurado, en sus reuniones, podrán utilizar el castellano y el euskera. Asimismo, en las convocatorias, órdenes del día, actas y en otros escritos se garantizará el uso de las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Artículo 7. *Procedimiento de concesión*

El premio «Manuel de Irujo» se concederá mediante procedimiento de concurrencia competitiva, en régimen de concurso, de conformidad con los criterios establecidos en este decreto.

La valoración de las candidaturas y la formulación de la propuesta de concesión corresponderán al jurado, de conformidad con lo previsto en el artículo 9.

La apreciación de los méritos tendrá carácter cualitativo y comparativo, atendiendo a la naturaleza honorífica y de reconocimiento del premio.

Artículo 8. *Criterios de valoración.*

Al objeto de formular su propuesta de concesión, el jurado tendrá en cuenta los siguientes criterios de valoración:

a) Experiencia y recorrido personal y profesional de la persona o personas propuestas en el ámbito de la justicia y de los valores y principios que la inspiran, así como en la contribución al desarrollo del derecho en cualquiera de sus disciplinas o especialidades. Asimismo, se valorará la trayectoria en el ámbito de la investigación jurídica, atendiendo, en este caso, la originalidad, calidad, corrección metodológica, rigor científico, carácter interdisciplinar o incorporación de la perspectiva de género en la investigación.

b) Relevancia intrínseca de la actuación o investigación desarrollada en relación con la promoción y consolidación de los valores de la justicia.

c) Repercusión e influencia, tanto en la sociedad vasca como en la esfera internacional, de la actuación o trayectoria desarrollada por la persona o personas propuestas.

Artículo 9. Informe del jurado.

1. El informe del jurado expresará las razones que justifiquen el acuerdo adoptado en relación con los criterios de valoración contenidos en este decreto, así como, en su caso, la valoración que le merece el significado y trayectoria de la persona física o jurídica premiadas.
2. El jurado podrá proponer conceder el premio «ex aequo» a varias candidaturas; en tal caso las cuantías previstas en la convocatoria se prorratearán entre las premiadas. El jurado podrá, asimismo, proponer que se declare desierto el premio cuando, a su juicio, las candidaturas propuestas no resulten merecedoras del mismo.
3. El jurado elevará el informe que contenga la propuesta de concesión del premio a la dirección competente en materia de justicia.
4. Con carácter previo a la resolución, se solicitará de la persona seleccionada por el jurado la presentación de la declaración responsable de no estar incurso en las prohibiciones establecidas en los apartados 2 y 3 del artículo 4, así como del medio de comunicación elegido a efectos de notificaciones.

Artículo 10. Concesión del premio.

1. Emitido el informe del jurado con la propuesta de concesión del premio, el órgano gestor formulará la propuesta de resolución, debidamente motivada, que se notificará a la persona física o jurídica propuesta como ganadora, concediéndose un plazo de diez días para que comunique su aceptación.
2. Si la aceptación se produce en plazo, el órgano gestor elevará propuesta de resolución definitiva al órgano competente para resolver el procedimiento de concesión del premio.
3. Si transcurrido ese plazo no se hubiera producido comunicación expresa de aceptación, o si la persona física o jurídica propuesta manifestara expresamente su renuncia, el órgano gestor elevará al órgano competente la propuesta de resolución, declarando desierto el premio.
4. Una vez aceptada la propuesta de resolución definitiva, el órgano competente para resolver el procedimiento de concesión del premio dictará la correspondiente resolución de concesión del premio o de declaración de desierto del mismo.
5. A efectos de la debida publicidad, la resolución de concesión o de declaración de desierto del premio se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco.
6. La concesión del premio deberá dictarse y notificarse en el plazo máximo de seis meses, a contar desde el día siguiente al de la publicación de la convocatoria anual en el Boletín Oficial del País Vasco.
7. Transcurrido dicho plazo sin que se haya dictado y notificado la resolución de concesión del premio, las candidaturas se podrán entender desestimadas a los efectos de lo establecido en el artículo 25.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Artículo 11. Entrega del premio y reconocimiento público.

1. El pago de la dotación económica del premio se tramitará con posterioridad a la publicación de la resolución de concesión.

2. La entrega del premio se llevará a cabo en un acto público organizado al efecto por la viceconsejería competente en materia de Justicia.

En el caso de que una persona o entidad premiada no pudiera asistir al acto público por causa justificada, deberá designar con la debida antelación a una persona para que recoja el premio en su nombre.

Artículo 12. Incumplimientos.

El incumplimiento de cualquier obligación establecida en el presente decreto, así como en cualquier disposición de carácter general aplicable a la convocatoria, dará lugar a la aplicación de lo dispuesto en el título III de la Ley 20/2023, de 21 de diciembre, Reguladora del Régimen de Subvenciones, y, en su caso, en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, por el que se regula el régimen general de garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi y se establecen los requisitos, régimen y obligaciones de las Entidades Colaboradoras que participan en su gestión.

Artículo 13. Compatibilidades.

La concesión del premio es compatible con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.

Disposición adicional primera. Protección de datos.

Los tratamientos de datos de carácter personal relacionados con la gestión del presente PREMIO se someterán a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos (Reglamento general de protección de datos), y de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.

Disposición adicional segunda. Normativa supletoria.

En todo lo no regulado expresamente en el presente decreto será de aplicación lo dispuesto en la Ley 20/2023, de 21 de diciembre, Reguladora del Régimen de Subvenciones; la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de subvenciones, y su Reglamento aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio; la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas; la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público y cuantas otras normas vigentes resulten de aplicación.

Disposición final única. Entrada en vigor.

El presente decreto entrará en vigor a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz,

El Lehendakari,
IMANOL PRADALES GIL

La consejera de Justicia y Derechos Humanos
MARÍA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LOPÉZ